

# Asisko gutuna

2010eko urria. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin,

anaitasunez bizi

24. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Hil honetan laugarren irizpidez egingo dugu gogoeta, barkamenari estuki lotua dagoen anaitasunaz. Barkamena bere bi aldeekin: barkatu eta barkatua izan. Geure pobrezia

pertsonaletik eta mugatasunetik abiatuz saia gaitezen barkamenari aukera ematen, horrela geure zailtasun pertsonalak eta bizikidetzako gatazkak era positiboan lantzeko.

## Gogoetarako gaia

### Barkamena

Mugatuak gara eta etengabe egiten ditugu erroreak. Min ematen diegu besteiei eta besteek apalduak eta irainduak sentiarazten gaituzte. Ikusten dugu besteek egiten diguten gaizkia eta, batzuetan, konturatzen gara geuk egiten dugunaz.

Sarritan geure barruan trabatuta gelditzen zaigu egin diguten iraina, aldendu egiten gara iraindu gaituenarengandik eta, gauzak ondo joanda, iraintzaileaz ezaxolatzea lortzen dugu. Beste batzuetan saminak eta suminak besteiei okerrenak opatzera eramaten gaitu, eta gorrotoak eta erresuminak bihotza pozoitzen digute.

Sarritan gu geu gara kalte egiten dugunak, konturatuta edo konturatu gabe besteen nahigabea eragiten dugunak. Batzuetan tranpa egiten diogu geure buruari, eragin dugun kaltea ez ikusteko, eta batez ere kalte egitera zerk bultzatzen digun ez ikusteko. Beste batzuetan min ematen digu egindakoak, gauzak beste era batera egin izana nahiko genuke, eta ikusten duguna ez zaigu atsegin geure alderik okerrena agerian jartzen duelako.

Egiten dugun gaitzetik, edo egiten digutenetik, geure burua gozatzeko, samin eta erresuminetik libratzeko edo errua geure baitan integratzeko, barkamena dugu giza izakiaren alderik onena azaltzen digun lanabesa. Berak egiten gaitu giza inperfekzioa onartzeko eta birlantzeko gai. Barkamena eskatzeak liberatu egiten gaitu eta barkatzeak ere bai. Barkamena eskatzea eta barkatzea txanpon beraren bi aldeak dira. Bi lan horiek bihotza birlantzea eta aldatzea exijitzen dute, sendatu egiten gaituzte barrutik gu eta besteak.

Baina geure begiratzeko modu kaskarretik, barkamena lodi etortzen zaigu. Geure begiratzeko modutik barkamena ez zaigu barrutik sortzen. Soilik maitasunaren begirada mugagabetik, ulertzen da barkamenaren sekretua. Jainkoaren maitasun absolutuari, gurutzean josten dutenentzat barkamena eskatzen duen Kristogan ispilatuari, begiratzeko irekitzen digu atea sekretu horretara.

## Ebanjelioko pasartea: Mt 18, 15-16. 21-22

Zure senide batek bekatu egiten badu, zoaz berarengana eta zentzarazi bakarrean. Jaramon egiten badizu, irabazia duzu senidea. Jaramonik egiten ez badizu, berriz, hartu zeurekin lagun bat edo bi, auzi oro bi edo hiru lekukoren aitopenez erabaki dadin. Orduan, hurbildu zitzaion Pedro

Jesusi eta galdetu zion:

— Jauna, senide batek bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?

Jesusek erantzun zion:

— Zazpi aldiz ez, zazpi milatan zazpi aldiz.

## Frantziskotar pasartea

Mugimenduak bi dira: barkatu eta barkatua izan. Gerta daiteke batek barkatzea, baina barkatua ez izatea. Alderantziz ere gerta daiteke: batek barkamena hartzea, baina barkatzeko zailtasun handia izatea ... honaino iristen da giza mugatasuna, orain eta lehenago; beti izan da horrela.

Asisko Frantziskok, guk bezala, barkatua izateko premia sentitu zuen. Konfiantzaz eta kemenez eskatzen zuen barkamena, eta honela egiten zuen otoitz: "Eta barkatu gure zorrak: zeure esan ezineko errukiagatik, zeure Seme maitearen nekaldiaren ahalmenagatik eta Ama Birjina txit dohatsuaren eta zeure aukeratu guztien merezimendu eta errengatik".

Baina Frantziskok barkatzeko zailtasuna ere sentitu zuen, eta horregatik gehitzen du: "Guk ere geure zordunei barkatzen diegunez gero: eta guk erabat barkatzen ez duguna, egizu, Jauna, barka dezagula erabat, zuregatik etsaiak benetan maita ditzagun eta zure aurrean haien alde debozioz erregu dezagun, inori gaitzik gaitz orde itzuli gabe, eta zuregan guztiei on egiten saia gaitezen". (Ik. "Gure Aitaren" azalpena 7-8)

Barkatzea eta barkatua izatea, eskatu behar dugun grazia da.

## 24 Salmotik

Jauna, zuregana jasotzen dut gogoa.  
zuregana gogoa.

Ene Jainko, zuregan dut konfiantza:  
ez diezadala usteak huts egin!

Ez daitezela etsaiak nitaz poztu!

Zuregan itxaron dutenei ez die inoiz usteak huts egingo;  
bai, ordea, arrazoirik gabe baztertzen zaituztenei!

Zuregan itxaron usteak huts egin.

Azaldu niri, Jauna, zeure bideak,  
erakutsi ni nondik ibiltzea nahi duzun.

Erakutsi zeure bideak.

Zuzen nazazu, zurekiko leial izan nadin, irakats niri,  
zu baitzara salbatzen nauen Jainkoa;  
zuregan itxaron dut etengabe.

Elkarri gogora, Jauna, zeure errukia eta maitasuna:  
betidanikoak dituzu.

Ez gogoratu, ordea, Jauna, nire gaztetako bekatuak  
eta nire errebeldiak.

Gogora nazazu zeure maitasunaz, zure ontasunari  
dagokionez.

## Gutuneko azken hitzak

Umiltasunak geure errealitateari eta izaerari egiten dio erreferentzia. Esperantzad, Jainkoaren promesei.

## 2010eko azaroko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate azaroko erreferentzia guztiak:

1 Mt 5, 1-12 <sup>a</sup>	7 Lk 20, 27-38	13 Lk 18, 1-8	19 Lk 19, 45-48	25 Lk 21, 20-28
2 Mk 15, 33-39; 16, 1-6	8 Lk 17, 1-6	14 Lk 21, 5-19	20 Lk 20, 27-40	26 Lk 21, 29-33
3 Lk 14, 25-23	9 Lk 17, 7-10	15 Lk 18, 35-43	21 Lk 23, 35-43	27 Lk 21, 34-36
4 Lk 15, 1-10	10 Lk 17, 11-19	16 Lk 19, 1-10	22 Lk 21, 1-4	28 Mt 24, 37-44
5 Lk 16, 1-8	11 Lk 17, 20-25	17 Lk 19, 11-28	23 Lk 21, 5-11	29 Mt 8, 5-11
6 Lk 16, 9-15	12 Lk 17, 26-37	18 Lk 19, 41-44	24 Lk 21, 12-19	30 Mt 4, 18-22

### Oharrak

·Asis Sareari buruzko informazioa hartu nahi izanez gero, edo gutun hau hileroko hartzeko izen emateko, deitu 646-214896 telefono zenbakira edo bidali mezua [asissarea@arantzazu.org](mailto:asissarea@arantzazu.org) helbide elektronikora.

·Asis Sarearen web gunean Gutun honen edukietan sakontzeko lanabes hau aurkituko duzu: "Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldea lan egiteko iradokizunak".

·Diru-ekarpenak egiteko kontu zenbakia: 0182 0326 15 0201516844 (BBVA).

# Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

## Asisko gutuna

2010ko urria. 4. printzipioa: Bidea elkarrekin egin, anaitasunez bizi 24. zenbakia

Geure eguneroko bizitzan saihets ezinak dira besteekin eta geure buruarekin ditugun gatazkak. Har dezakegu min besteengandik edo geuk min eman besteei. Hil honetan, geure buruarekiko, besteekiko eta Jainkoarekiko harremanetako giltza batera, barkamenera, hurbiltzeko gonbitea egiten zaigu. Bizitza osoko lana da, eta ez erraza, barkamena ematen, eskatzen eta hartzen ikastea.

### Barkamena

Gogoeta honetan, barkamenarekin zerikusia duten egoera batzuk zehazten dira. Zein kasutan zaude gaur barkamena eskatzeko edo emateko premian? Jarri izenak, aurpegiak... Askotan, zailtasunei aurrez aurre begiratu gelditzen ez garelako, ez dugu aurrerapenik egiten.

Zehazki, zerk eragozten dizu barkamena ematea edo eskatzea?

Zerk emango lizuke laguntza? Har ezazu denbora eta utzi erantzunari barne barnetik etortzen.

Ba duzu, zeure buruari barkatzen ez diozun gauzaren bat?

Lehenago edo geroago, doan maitatzeko dugun mugarekin egiten dugu topo. Hori da, gurutzeko Jesusi begiratzeko momentua ...

### Zazpitan zazpi hamar aldiz

“Zazpitan zazpi hamar aldiz”, hau da, beti. Zer oihartzun dakarkizu Jesusen esan horrek? Ergelen edo ameskeriagileen gauza deritzozu?

Sumatzen duzu daukan jakinduria? Geure mugak, geure maitatzeko eskasia eta nahi gabe egin dezakegun kaltea kontuan hartuko bagenitu, esker onez beteko ginatke, Jesusek eskatutako barkamenak azkenik ez izateagatik: Aitaren barkamena da beti barkamenaren neurria.

Guretzat ezinezkoa da, baina ez Harentzat. Eska diezaiogun zabal dezala gure bihotza, barkamenari tokia eman diezaión.

### Barkamena eman eta hartu

Frantziskoren esperientzia ezagutzean, gertuko egiten zaigu bera. Eta horrela jar gaitzke berari entzuten, harengandik ikasteko.

Irakur ezazu, barkamenari buruz “Gure Aitaren” azalpenean esaten duena: zer esnatzen du zuregan? Zeintzuk dira haren esperientziaren giltzak? Zer argi ematen dizute zeure bidea egiteko?

### Gogora nazazu zeure maitasunaz

Beti gelditzen zaigu Jainkoagana jotzea, Harengana gogoia jasotzea (apalki, geure zailtasunak, barkamena eman eta eskatu ezinak edo egindako eta barkatu gabeko kaltea ... kontuan hartuz), eta Haren errukian atseden hartzea: “Gogora nazazu zeure maitasunaz”.

Hartu denbora, ez izan presarik, eta errepika esaldi hori bihotzetik: Zer oihartzun sortzen du zuregan?

Hain baldar garenez, eska diezaiokegu Jainkoari, azal diezazkigula bere bideak, zuzen gaitzala Berarekiko leial izaten. Dena jarri beharko dugu geure partetik, baina azkenean jakinez, hemen ere geure mugak onartzea eta konfiantzaz erregutzea dela dena.